




LH-6. MAILA
6. UNITATE DIDAKTIKOA
"Berdintasunez bizi familian"




BERDINTASUNEZ BIZI FAMILIAN-2: BIKOTE HARREMAN ONAK

Idatzi zure izena:



Bikote harremanak Giza Eskubideetan oinarriturik eraiki daitezke. Ala ez. Berdintasunez eta kidetasunez, pozez eta zoriontsu, bizi daitezke. Ala ez. Gure esku dago. Guk nahi dugun bikote-harremanak eraiki ditzakegu. Horretarako, gure inguruko harremanak aztertu eta baloratu ditzakegu, guretzat nahi duguna aukeratu eta egunez egun eraikitzen joan.

1.- Hona hemen **bikote harremani buruz bi aholku eskaera**. Idatzi **BAI** zuk emango zeniekeen aholkuetan eta **EZ** beste esaldietan:

LEHEN KASUA	ERANTZUNAK  AHOLKUAK		BAI ala EZ
	<p>Hain nago pozik, ezin dudala ezkutatu. Mutil batekin hasi nintzen eta gauzak gero eta hobeto doaz bion artean. Elkarrekin gaudenean oso ondo pasatzen dugu. Esaten didate nire lagunak ere: "neska, neska, beste bat dirudizu".</p> <p>Lagunekin nagoenean oso gustura egoten naiz beraiekin. Ez dut beraiekin erlazioa galdu. Nire mutil-laguna ere etortzen da gurekin ahal duenean eta ahalegintzen da beraiekin hitz egiten, beren gauzak galdetzen eta abar. Nire lagunak inportatzen zaizkiola dirudi.</p> <p>Beno, nire lagunak eta nire bizitzako gauza guztiak: nire ikasketak, familia, kezkak, planak... ni neu naizen guztia. Izan daiteke beti horrela? Ez al naiz zorionsuegia? Zer egin dezaket horrela jarraitzeko?</p>	<p>1. Maitasuna ez da ikusezina, nabaritu egiten da. Zure bikote harremana bikaina da. Zorionak!</p> <p>2. Pertsona bat maitatzeak ez du kentzen beste batzuk ere maitatzea: lagunak, familia eta abar.</p> <p>3. Maitasuna balitz beti berarekin bakarrik egon nahiko zenuke eta berak bakarrik zurekin.</p> <p>4. Maitasuna sufritzeko da, zalantzak beterik egoteko, ez pozik, ziur eta zoriontsu bizitzeko.</p> <p>5. Maitasuna bakoitzak duen izaera, bizimodua, proiektuak eta lagunak partekatzea da.</p> <p>6. Horrela izan daiteke, bai, bakoitzak nahi duzuen izaten laguntzen zareten bitartean.</p>	

BIGARREN KASUA	ERANTZUNAK  AHOLKUAK		BAI ala EZ
	<p>Neskak hasieratik deitu zidan atentzia. Adimentsua eta langilea da, baina era berean atsegina, alaia eta lagun askokoa da.</p> <p>Talde-lan bat elkarrekin egin behar izan dugu eta oso ondo konpondu gara. Antzeko umorea dugula konturatu naiz.</p> <p>Bestalde, lankide ona izan da, ekarpen asko egin ditu eta nireak ere onartzen ditu.</p> <p>Ordu asko pasa ditugu elkarrekin eta gauza askotaz hitz egin dugu oso era betegarrian, bereziki gure gauzez.</p> <p>Etxean, pozik nabilela esan didate eta neu ere konturatu naiz.</p> <p>Maitemindurik al nago? Hau maitasuna da ala lagun on bat aurkitu dut eta kito?</p>	<p>1. Maitasunak bestearen gauza onak ikusten laguntzen digu eta gure onak ateratzen ere bai.</p> <p>2. Aurpegi polita eta gorputz ederra izatea, hori da garrantzitsuena, ez alaia edo langilea den.</p> <p>3. Garrantzitsuena zu ondo sentitzea, berarekin gustura egotea eta elkarrekin ondo pasatzea da.</p> <p>4. Oso ona da elkarrekin lanak eta planak egitea elkar hobeto ezagutzeko, harremana egiten joateko.</p> <p>5. Zalantzarik gabe, lagun on bat duzu. Bikote maitasuna dagoen ala ez elkarrekin ikusiko duzue.</p> <p>6. Lagunak maite ditugu. Lagun onak maite ditugu. Bikotea maite dugu. Maitasun-sarea zoragarria da.</p>	

→ Bizitza hegan egitea da. Maitasuna elkarrekin hegan egitea, baina ez lotuta.